



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-09-23

VI. URTEA 1.515. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Zabaleta, Jaka eta Armendariz pilotariak, txapeldunak

AMEZKETA XIX. Joxean Tolosa Txapelketaren finalak jokatu zituzten herenegun 5



Goian, Ibarra sukaldian platera prestatzen; behean, Asteasuko Azoka Berezia. ANDER OTEZABAL

JANARI ETA GANADU ARTEAN, GIRO EZIN HOBEA AZOKETAN

TOLOSALDEA Asteasun Azoka Berezia eta Ibarra 'Ibarra, azoka eta piparra' izan ziren igandean; lehiaketetan eskualdekoak fin aritu ziren 6



Adunan, besteak beste, bizikleten txkeoa egin zuten. HITZA

Ekitaldi ugari mugikortasuna ardatz hartuta

TOLOSALDEA Ingurumena zaintzearen garrantzia aldarrikatu dute Autorik Gabeko Egunean 4

LEIRE OLABERRIA
TXIRRINDULARIA

«Lortu dudan brontzeko dominak urre zaporea dauka»

IKAZTEGIETA Pekingo Olinpiar Jokoetan irabazi zuen domina kirolariak 2

Antolatzaileak gustura aurtengo Garagardo Festarekin

TOLOSA Bisitari kopurua urtetik urtera mantendu egin dela diote 3

E Elkarrizketa

LEIRE OLABERRIA | Txirrindularia

«Irabazitako brontzezko dominak urre zaporea dauka»

Ikaztegieta » Pekingo Olinpiar Jokoetan duela hilabete bat brontzezko domina irabazi zuen, Europakoetan laugarren egin du eta orain Munduko Kopari ari da begira.

NEREA URBIZU

Bizikleta gainean duela urte gutxi hasi bazen ere, lan asko egin ondoren kirolari batek amestu dezakeen gauzarik ia preziatuenetarikoa lortu du Leire Olaberriak (Ikaztegieta, 1976): Olinpiar Jokoetako brontzezko domin bat, bere kasuan, pistako txirrindularitzan. Gurasoen etxean omen dago Pekingo abuztuan ekarritako domina.

Asko emozionatu zinen brontzea jasotzean. Tentsio guztia askatu zenuen orduan?

Zaila da hitzekin adieraztea une horretan sentitzen dena. Kirol ibilbide luze bat izan da, beti saiatu naiz gauzak ondo egiten, batzuetan asmatu dut eta besteetan ez eta nahiz eta present izan domina lor nezakeela, pentsatzetik lortzen duzun momentura arte badago tarte bat. Nire burua zegoen prestatua karrera bukatzerara arte, baina hortik aurrera ez. Dena berria zen eta emozioak atera zitzaizkidan. Burura, bidean zenbat lan egin den etortzen zaizu, zein bide egin duzun ikusten duzu. Nire bizitzan ez nuen inoiz pentsatu horrelako gauzarik biziko nuenik.

Leire negar batean, hor ikusi zen Leirerengizatasun hori.

Askotan telebistan kirolari handiak ikusten ohituta gaude eta askotan badirudi egunero irabazten dutela... Batzuetan gauzak hain era mekanikoan egiten ditugu, askotan badirudiela ez daukagula ez emoziorik ez ezer. Nik, kirolari izan aurretik gauza pila egin behar izan dut eta nire alde humano hori agian gehiago garatu dut, ez dakit... Hau da, badakit bizitza normal bat eramatea zer den. Nire ametsa kirolaz bizitzea zen eta behin horren barruan sartuta halako momentu bereziak bizitzea egokitzen bazazuzu, oso berezia da. Karrera hotza izan beharra da, baina ondoren eskubidea dugu ere barruan dituzun emozio horiek ateratzeko, bestela lehertu egingo ginatete!

Deula hilabete bat lortu zenuen domina. Asimilatu al duzu?

Domina lortu eta hurrengo bi egunak ez nituen ondo pasa. Behera-



I. TERRADILLOS

kada moduko bat izan nuen, ez dut depresioa esango, baina animoz ere beherakada sentitu nuen; ez nekien nondik heldu egoera horri. Emozio horren guztiaren ondorioa zela uste dut. Ez da erraza asimilatzea, ez pentsa. Eguneroko bizitza hori nahi nuen azkar, hanka sartzen jarraitu eta lehenbailehen egin nahi izan dut. Lana ondo egin nuen baina ez nuen horretan gelditu nahi.

Nori dedikatu diozu brontze hori?

Beti esan izan dut hain denbora gutxian nagoen lekuan egoteko jende askoren laguntza behar izan dudala. Momentu horretan asko gogoratu nintzen horietaz, batzuk pila bat lagundu dute eta beste batzuk ez hainbeste, baina denak dira beharrezkoak. Niretzat garrantzitsua izan den jendea ere gogoratu nuen eta zoritxarrez urteetan zehar galdu dudana ere bai.

Lasai zeundela diozu proba egiteko garaian. Nola ulertzen da hori?

Oso gutxi lehiatuta prestatu dugun helburua izan da eta nik oso gustuko dut lehiatzea. Mentalizatu behar izan nintzen, ikusteko entre-

namendu asko egin behar genituel eta ez hainbeste lehiatu, Olinpiar Jokoak prestatzeko. Lau hilabetez itxaron nuen iristeko eguna eta banekien zer eta nola pentsatu behar nuen Pekinen. Bezperako gauean oso urduri egon nintzen eta normalean lo lasai egiten dut. Egia esan, egun osoa oso arraroa izan zen: pistara oso-oso lasai ateratzen. Neure buruari esaten nion: «Edo hau oso ona da, edo hau oso txarra da». Azkenean bukaera polita izan zuen.

Datozen Olinpiar Jokoetan aritzea nire planen baitan dago, baina poliki joan nahi dut

Duela lau urte esango zenuke Olinpiar Jokoak jokatuko zenuela?

Ez nuen pentsatuko. Lasterketara ateratzen naizen guztietan oso borrokalaria naiz eta beti gauzak ondo egitera ateratzen naiz. Baina gauza bat da izaera hori izatea eta beste bat egunen batean plante-

tzea Olinpiar Jokoetara joatea bakarrik. Joan behar nintzela jakin nuenean momentu oso polita izan zen, Pekinera joateko sailkatu nintzen ikusi ondoren izugarria izan zen, harro sentitu nintzen.

Eta bertako giroa nolakoa zen?

Olinpiar Jokoetan... Egunerokobizitza oso polita izan zen, hainbeste kirolarirekin. Eguneroko bizitza txirrindularien artean egiten duguk, eta bat batean mundu guztiko kirolariek egotea oso aberatsa izan da. Hain gustura egonda eta gainera egin behar duzun lana ondo egitea, dena lortzea izan da.

Eta Iker Martinezek zilarrezkoa lortu zuen.

Gogoratu nintzen, bai. Lasterketa bukatu ondoren telefonoz hitz egiteko aukera izan genuen. Biak HITZAN izan ginen uztailean eta biak dominarekin bueltatu gara! Pentsatuko dizue erraza dela... Euren kasuan agian zapore ez oso onduen zilarra ekarri dute; nire kasuan brontzea izan da, baina urre zaporekoa da.

Datorren Olinpiar Jokoetan ari ziteke aukerarik baduzu?

Orain arte egin dugun ibilbidea jarraituz gero, bai. Sailkapena lortu behar da, eta gero zure herrialdeko indartsuena izan beharra zara. Egia da, Pekinen bizitakoaren ondoren, nire ustez edozein kirolaririk berriro bizi nahi duela momentu hori. Oraingo, pasatu denaz gozatu, bizitu, ikasi eta hobetu ahal bada hobetu. Urtero Mundiala egingo dut eta Olinpiar Jokoak iritsi arte. Baina bai, nire planen bai-

Ikaztegieta omenaldia oso polita izan zen, herritarrekin une horiek banatzea, alegia

tan badago. Dena dela, poliki-poliki joan behar da, lan eginez.

**Herrian ere omenaldia egin zizuten. Espero zenuen halako harre-
ra?**

Ez nuen espero, baina egindakoa oso polita izan zen. Donostian bizi naiz baina ikaztegiatarra sentitzen naiz. Bertan hazi naiz eta oso bertakoa sentitzen naiz. Oso polita izan zen, herritarrekin momentu horiek banatzea gauza polita izan zen.

Doping probak izan dituzu Pekinen?

Hara joan aurretik hemen hiruzpau proba egin zizkiguten, derrigorrezkoak zirenak. Errepideko txirrindulariak asko astindu dituzte nire ustez, han bertan: egunero. Nik domina lortu ondoren izan nituen kontrolak, bestela, bitartean ez.

Europakoan laugarren egin zenuen. Dena eman zenuen ala Olinpiar Jokoan ondoren lasaitu egin zinen?

Laugarren egin nuen: Pekindik buelta egin nuenean nire eguneroko bizitza ez da betiko bizitza izan: Konpromiso asko izan ditut. Europakora joan nintzen ondo sentitzen nintzelako eta Mundialari begira puntuagarria eta garrantzitsua zen. Lau proba ziren eta laurak ondo egitea garrantzitsua da. Puntuazioko proba ez zitzaidan ondo joan, eta gehien gustatzen zaidan proba da. Ia erori egin nintzen, aurrekoa ia ere bai... Ez nuen burua behar nuen lekuan izan, eta hori nabaritu zen. Ez nintzen gustura gelditu egindako lanarekin, baina laugarren egitea ere kosta egiten da.

Orain burua non?

Aurten Munduko Kopak bost saio izango ditu eta nire helburua bertan aritzea izango da. Olinpiar Jokoek emandako puntuekin ia-ia bertan aritzeko sailkatu egin naiz. Beraz, Munduko Kopako lehen hiru saiotan ariko naiz, Manchester-en (Britainia Handia) eta Melbourne (Australia). Bosgarrenean ere ariko naiz (Kopenhagen). Proba hauetan jazarpenaren zentratuko naiz.

Laburrak

Hizkuntza Eskolako zerrendak etzi ikusgai

HEZKUNTZA • Tolosako Hizkuntza Eskola Ofizialaren idazkaritza, Tolosako Paper Eskolaren (Paper kalea 1, Berazubiko estadioaren atzealde) lehenengo solairuan egongo dena, gaur, 10:00etatik 14:00etara irekiko dute. Bestalde, ikasleen zerrenda barematuak etzi ondorengo bi web gune hauetan agertuko dira: www.eoidonheo.org eta www.eoi-euskadi.net. Erreklamazioak egiteko bi egun hauek ditu aurrematikula egin duenak: hilaren 26a eta 29a.

Sheriffak euskaltegia joatera animatuko gaitu

EUSKARA • Udal Euskaltegien aurtengo *Wanted* kanpainaren baitan, gaur Sheriff bat ibiliko da Tolosako eta Ibarako kaleetan Udal Euskaltegiei buruzko esku-orriak banatuz, eta bide batez, festa giroan, euskaltegiak behar duen pertsonaren bila ere ariko da, euskaltegiaren izena emateko anima daitezten.



Santoñako atentatua salatu dute

ATENTATUA • Eudelek deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo Tolosan, EAEko beste hainbat herrietan bezala, ET Ak atzo goizean Santoñan (Kantabria, Espainia) egin duen atentatua salatzen asmoz. Bonba-autoa zartarazi zuen ET Ak Espainiako armadaren egoitza baten aurka San-

toñan, eta militar bat hil zuen, eta beste sei lagun zauritu ziren. ET Ak 24 ordutan leherrarazi duen hiru garren bonba-autoa izan da. Larunbatetik igandera goauean Vital Kutxaren egoitzaren aurka egin zuten Gasteizen eta Ertzaintzaren polizia etxearen kontra Ondarroan. i.t.

Bisitari kopurua mantenduta, antolatzaileak gustura aurtegoarekin

Gastronomia »

Ostegunetik igandera herritar ugari igaro dira Zerkausitik X. Garagardo Festaz gozatzeko.

INIGO TERRADILLOS

Igaro da aurtengo Garagardo Festa, eta ez oharkabean, herritar ugari izan baita bertan, bai afaltzera joanda, bai eta, bertako garagardoa dastatzera ere. Izan ere, Garagardo Festa dagoen asteburuan oso ohiko bilakatu da herritarren artean bertara joatea, geroz eta errotuago dagoen seinale, beraz. Hala, baieztazen dute antolatzaileek aurtengoak eman duenaren balantzea egiterako orduan.

Aurtengoa hamargarren urtea zuen Garagardo Festak, eta adinean aurrera egin ahala, «bisitari kopurua mantenduz» doala azaldu dute. «Geroz eta gehiago dira Festara afaltzera joaten direnak; hori urtetik urtera nabaritzen ari gara, izan ere, afarien kopuruak gora egiten du, eta edariak jeitsi edo mantendu egiten dira». Tolosako Garagardo Festa besteekin alderatuz zentzu horretan dela «desberdina edo berezia» diote antolatzaileek: «asko izaten dira familian etortzen direnak, seme-alabekin eta; era berean, plana ere lasaigoa edo izaten dela esan daiteke, izan ere, afaltzera joateko ohitura



Garagardo Festaren baitan, herenegun triziklo zirkuitua izan zen. A. OTEZABAL

handia dago, azaltzera joan eta trago pare bat hartzea izaten da jende gehienak egiten duena».

Ordutegiak ere zeresana izan dezake horretan, beranduenera 01:00etan itxi baitute Festa. Jendeak, ordea, festarekin jarraitu zuen gero tabernetan, eta gainera hauek ordubete beranduago ixteko baimena zuten. «Garagardo Festara jende ugari etortzen da, baina garaiz ixten dugu, gure asmoa ez delako parranda bertan egitea, taberne ere balia dezaten egoera nahi izaten dugu», azaltzen dute.

Jende ugari lau egunetan

1.300 lagunentzat prestatu zuten lekua aurtengoan afaltzeko. Ostiralean eta larunbatean gune guztiak ireki zituzten, hau da, Zerkausia, goiko eta beheko pisuak, eta Solana kalea eta Trianguloa. Azken hau, azken orduko aldaketa izan zen, izan ere, Plaza Zaharrean ere jarri behar zituzten mahaia aurreko urteetan bezala, baina aurreko asteburuan Triangulon eginko azoka berezian erabilitako azpiegiturak baliatzea erabaki zuten. Ostiralean eta larunbatean, beraz, jendez beteta egon zirela gune guztiak azaldu dute, eta bi txanda ere egin zituztela. Ostegunetan eta igandean, Zerkausiko goiko eta beheko solairuak ez zituzten ireki, gainerakoetan zerbitzatu zituzten afariak. Beraz, argi dago jende uga-

ri izan dela, eta horretan egindako eguraldiak ere zeresana izan duela aipatzen dute antolatzaileek.

Halaber, jendea oso gustura geratu dela diote. «Garagardo mota desberdinak dastatzeko aukera eskaintzen dugu, etxe askorekin egiten dugulako lan; eta janarian ere berrikuntzak sartzen goaz eta kalitateari garrantzia ematen diogu».

«Esker berezia udal langileei»

Garagardo Festa behar bezala irtekeko lan handia egin dute lau egunetan, eta aurretik ere bai, guztia ondo antolatzen. Baina, merezi duela diote Tolosaldea IKT, Tolosako Judo Taldea eta Tolosa CF nesken txirrindulari taldekoek, «bertan ateratakoa beharrezkoa baitugu urteko ekintzak burutu ahal izateko».

Hala, hiru talde antolatzaileek, eskerak eman nahi dizkiete lagundu duten guztiei, eta bertan izan direnei. «Esker berezia eman nahi diegu udal langileei, asko lagundu digutelako materialarekin, eta muntai lanetan».

UNED-Bergara

Zure denbora eta zirkunstantziak erabiltzen dan unibertsiatate

HITZALDI INFORMATIBOA

Irailak 23, asteartea. Arratsaldeko 19tan Koldo Mitxelena Kulturunea. Donostia.

■ Publiko guztiari irekia

- 30 karrera Unibertsitario baino gehiago
- Jarrapen indibidualizatua eta eskaintza egokitu
- Doktoretza ikastaroak, graduondokoak, masterak...
- Tutorietza Telematikoa eta segimendu presentziala

UNED BERGARA
UNED-Bergara II San Martin Pl.4. 20570 Bergara II Tel. 943 789 033 E info@bergara.uned.es E www.uned.es/ce/bergara

Mugikortasuna ardatz hartuta hainbat ekitaldi egin dituzte eskualdean

Mugikortasun Astea »

Eskoletara bizikletaz jende gehiago joan zen atzo, autorik gabeko eguna izan baitzen.

ERREDAKZIOA

Mugikortasun Astea daude bete-betean Tolosan, eta Ernioaldea Udaltalde 21 osatzen duten udalerriek eta San Lorenzo Udaltalde 21 osatzen dutenek atzo amaitu zuten beraienena. Hain justu, atzo autorik gabeko eguna izan zen eta eskualdean hainbat ekintza egin ziren mugikortasunari buruz orokorrean eta autoaren erabilpenari buruz bereziki. Bizikleta ohi baino gehiago ikusi zen atzokoan eskolara joateko.

Tolosan trafikoari buruzko datu bilketa egin zuten goiz guztian zehar. Tolosako Ingurumen Zentroa arduratu zen lan horretaz, Laskoraingo DBH4ko ikasleen laguntzarekin. Bestalde, Udalak antolatuta, txapak egiteko aukera izan zuten haur eta gazteek kiroldegian zein Haur Liburutegian.

Eskoletan ere ekintzak

Tolosako hiru eskoletan ere hainbat ekintza antolatu zituzten atzo-



Bizikleten txekeoa egin zuten atzo Adunan. HITZA

koan. Laskorainean, trafikoko datuak biltzeaz gain, DBH3 mailakoak kazetari lanetan aritu ziren bilketa horren buruz albisteak osatuz. DBH1 eta 2 mailakoek ikastola apaintzeko marrazkiak egiten ari ziren. Isabel Prietoren bisita ere izan zuten Laskorainekoek; ikasleak oinez taldean nolajoa daitezkeen erakutsi zien Prietok, egune-

ro egunero autobusarik hartzen ibilgibe.

Bere aldetik, Samaniegoko LH4, 5 eta 6 mailakoak Triangulon elkartu ziren eta bizikletan joan ziren eskolara. 5 eta 6 mailakoek trialdioa egin zuten eta laugarren mailakoekin batera bidegorria erabiltzeko gomendiak jaso zituzten. LH3ko ikasleek urratsak jarri zi-

tuzten eskolako sarreran. Azkenik, LH1 eta 2koek eta Haur Hezkuntzakoek muralak egin zituzten.

Hirukideko ikasleak ere atzoko egunez ekintza bereziak antolatu zituzten, beti ere gaiaren inguruan kontzientziatzeko helburuarekin. Halaber, ikastetxe guztietan deialdia egin zuten eskolara autoz ez joateko.

Anoetan antzerkia izan zuten LHko bigarren ziklokoek, bide hezkuntzari buruz. Haur Hezkuntzakoek ginkana egin zuten arratsaldean. Bestalde, Adunako eta Zizurkil Goiko eskoletan bizikleten txekeoa egin zuten. Ibarrran, LHko ikasleek bizikleta mar-txa egin zuten atzo. Horixe bera egin zuten Berastegin ere ostiralean, bizikleta txekeatu ondoren.

Bigarren eskuko azoka

Ernioaldea Udaltalde 21aren baitan, larunbatean bigarren eskuko azoka antolatu dute eta bihar amaitzen da epea bigarren eskuko material hori herri bakoitzean dagoen lekuan uzteko epea.

Bestalde, bizikletan ibiltzen ikasteko helduentzako ikastaroa antolatu dute eta horretarako 656 72 80 85 zenbakira deitu behar da. azken eguna etzi izango da.

Ikastaroetan izena emateko aukera hilaren 26a arte Alkizan

ERREDAKZIOA

Haurrentzat eta helduentzat ekin-tzak antolatu dituzte Alkizan. Haurrei zuzendutakoak ondorengoak dira: ludoteka, astelehenetik ostegunetara, 16:30etik 17:30era; Kirola Ezagutuz, astelehenean, 16:30etik 17:30era; euskal dantza, asteartean, 16:30etik 17:30era; eskulanak, ostegunetan, 14:00etatik 15:30era; antzerkia, ostegunetan, 15:00etatik 16:00etara; pilota, asteazkenetan, 16:30etik 17:30era; eta musika tailerra, ostiraletan, 16:30etik 17:30era.

Helduei zuzendutakoak, berriz, ondorengoak dira: diafreo, astelehenean, 09:15etik 10:15era; euskal dantza, asteartean, 09:15etik 10:15era eta 17:30etik 16:30era; eta eskulanak, ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara. Matrikula epea ostiralean bukatzen da eta izen-emateak Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoetan edo 943 69 39 30 zenbakian egin daiteke.

Oinkariren dantza ikastaroa gazte nahiz helduentzat

ERREDAKZIOA

Oinkari dantza taldeak gazte nahiz helduei zuzenduriko dantza ikastaroa antolatu du. Fandangoa eta arin-arinaz gain, erromerietan dantzaten diren betiko dantzak ikasteko aukera izango dute izena ematen dutenek.

Ikastaroari urriaren 6an eman-gio diote hasiera eta 20:30etik 21:30era izango da. Egun horretatik hasita, uztaile arte, astelehenero bilduko dira Txermingo ikastolako ganbaran. 660 13 93 80 zenbakira deitu (18:30etik aurrera), harremanak@oinkari.net helbidera idatzi, edo astearte-ostiraletan 20:30etik aurrera Ikastolako ganbaran duten entsegu lekura joanez eman daiteke izena.

Marka berria sanmielen baitan

IRURA » Jaiak hasi baino ez dira egin irurarrentzat, oraindik ere beste asteburu luze bat geratzen baitaie. Hurrengo iritsi aurretik, ordea, lehenengo aroprobatzen jakin dute. Herenegun, esaterako, jende ugari hurbildu zen plazara dantzari txikiak ikustera. Ondoren, Mari Jose Sardonek inoiz emakumezko harri-jasotzaile batek ezarritako markarik handiena ezarri zuen harri biribilarekin: hiru jasoaldi 100 kiloko bolarekin, 5 minutu-txo txandan. HITZA



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Armendariz, Zabaleta eta Jaka izan dira XIX. Joxean Tolosako txapelkunak

Amezketak «Espero baino lehiakortasun gutxiago», baina «armailetan jendea izateaz gain, giro bikaina» jarri dute pilotalekuan.

NEREA URBIZU

XIX. Joxean Tolosa pilota Txapelketak baditu aurtengo txapelkunen izenak: Jaka, Zabaleta eta Armendariz, hain zuzen. Antolatzaileak «gustura» gelditu dira aurtengo txapelketarekin, batez ere, «jendearen erantzunarekin, ikusleen paperarekin: oso pozgarria izan da». Partidei dagokionez, «lehiakortasun eta parekotasun gehiago espero genuen».

Jaka infantilak kadeteen mailan jokatu zuen eta 18-3 irabazi zuen «Loidi urduritu baten aurrean. Aurreko gauen botaka aritu zen, urduritasunak jota. Hanketan ere dardara somatzen zitzaion». Horri gaineratu behar zaio, igandeko Leitzako beste finala.

Garztean, nahiz eta Arzelus 3 eta 0 aurreratu, laister ikusi zen

«ez zuela zeregirik: Zabaleta handi baten kontra», 6-18 galduz. «Zabaleta dena perfektu egin zuen, eta ez zen zorte kontua izan, berak horrela jolastan du, dena erraz. Maitasuna erakutsi zuen».

Nagusitan seina egotera iritsi ziren Armendariz eta Onsalo, eta ordua arte oreka izan zen. «Baina hortik aurrera jaun eta jabe Espainiak txapelkuna den Armendariz izan zen». 18-6 bukatu zen norgehiagoka. Eskuan min hartuta bukatu zuen partida Onsalo. Aresoarrak argitu bezala, «finalerdian mina hartu nuen eskuineko eskuan. Aste honetan bi masaje jaso ditut eskuan eta txaparekin atera behar izan nuen jokatzera. Bukarant kendu nuen baina berandu zen. Ez nuen gozatu, eta gainera, Xuban gehiago izan zen». Armendarizek jo handia duela diote, eta hori izan zen bere arma.

Armendariz nafarrak adierazi duenez, «urduri nongoen hasieran, baina partida aurrera joan ahala, lasaitu nintzen. Buruz burukoan batek ongi egiten baditu lanak, diferentzia handiak daude».



Datorren urteari begira

Datorren urtean Josean Tolosa Txapelketak 20 urte beteko ditu. Honen harira, antolatzaileek txapelketan aldaketa batzuk egiteko asmoak dituzte, «baina oraindik asko landu behar da hori». Edozein kasutan, halako txapelketak antolatzeak lana suposatzen du, baina «gustura aritzen gara antolatzten, eta gure ustez, merezi du emaitza ondoren ikusita».


Txapelketan gauza azpimarragarrienetakoa «jendea, ikuslea izan da. Horregatik, baliteke datorren urteari begira, inguruko pilotari gehiago ekartzea, azken batean, hauek ekartzen dute jendea pilotalekura: frontoiko giro bero hori haiek jartzen dute».

Eskertu beharrekoak

20 urte beteko dituen buruz buruko pilota txapelketa hau aurrera ateratzea laguntzari esker da. «Pilotariak, diruz lagundu dutenak, Josean Tolosa pilotaria eta aurren bereziki jendea, Amezketako pilotalekura bai finalean eta aurretik hurbildu diren ikusleak».



Jaka lizartzarra eta Loidi aritu ziren kadeteen finalean (18-3). A. OTEZABAL



Zabaleta eta Arzelus, gazteen mailan (18-6). A. OTEZABAL



Armendariz eta Onsalo nafarrak, nagusien mailan (18-6). A. OTEZABAL

Leitzako IV. Pilota Txapelketak baditu irabazleak

Leitza «Bost mailatan aritu dira eta tartean, Leitzaldeko pilotari asko aritu dira, txapela ere etxera eramanez».

ERREDAKZIOA

Leitzako IV. pilota Txapelketak finalen berri ere bada. Herenegun izan ziren Amazabal pilotalekuan eta Leitzakoak nagusitu ziren, bost mailatetik, lautan. Garziarena-Iribarria bikotea 18-15 gailendu zen

Sagastibeltza-Bakaikoaren aurrean. Kadeteen mailan Arrieta-Jauregi 18, Tainta-Arratibel 16 gelditu ziren.

Jaunarena-Zabaleta bikoteak 22 tanto egin zituen Ansotegi-Albisu jubilenen kontra, eta nagusietan, berriz, Urtaşun-Jauregi bikotea gehiago izan zen Renobales-Madariagaren aurrean 22-16 bukatu baitzen norgehiagoka.

Olano-Artola bikote infantilak 5 tanto egin zituen, Elezkano-Hernandorenarekin jokatu ondoren (18 tanto).



Argazkian, antolatzaileak eta igandeko pilotari parte-hartzaileak, Amazabal pilotalekuan. HITZA

Laburrak

Kultur Batzordearen bilera etzi izango da

ALEGIA ● Alegiako Kultur Batzordea martxan da berriz. Herriko kultur taldeetako kideek eta kulturarekin interesa duten herritarrek osatzen dute batzordea. Batzorde irekia denez, edonork har dezake parte. Herrian bultzatzen eta bultzatzaitezkeen ekimenen inguruko proposamenak eta ideiak lantzeko gunea da batzordea. Bilerak 15 egunetik behin izaten dira: hurrengo, etzi Kultur Etxean, 19:00etan izango da.

Dantza ikastaroetan izena emateko epeak zabalik

ALEGIA ● Alegian dantza ikasturtea antolatu dute bi mailatan. Bertan parte hartzeko izena eman behar da: dantzari txikienean (6 urtetik gorakoentzat), eta bestela helduek. Izena Kultur Etxean eman behar da eta hilaren 30era arte dago epea zabalik. Lehendik partaide direnek ere izena eman behar dute. Bi ikasturteetako eguna eta orduak zehazteko, urriaren 1ean Kultur Etxean bilera egingo dute, 16:30ean.



Alegiako dantzari txikiak, Karmen jaietan eskainitako saioan. N. URBIZU

Kultur Astea gaur hasiko da txotxongiloekin

BIDEGOIAN ● Gaur, Bidegoiangor Kultur Asteari helduko diote. Horretarako lehen ikuskizuna txotxongilo emanaldia izango da, Zuk-zuk jaunaren alfabetoa, hain zuzen. Bidaniko pilotalekuan izango da 17:30ean Irrintzi Txotxongilo taldea. Etzi, berriz, Beloso eta Bengoetxea pilotariak balioanitzeko gelan egongo dira 19:00etatik aurrera, pilotaz hitz egiteko eta bertan galderak erantzuteko prest izango dira.

Giro paregabea izan dute pasa den igandeko azoka berezietan

Gizartea Azoka bereziak izan ziren bi herrietan igandean; eguraldi onak lagunduta jende asko ibili zen bietan.

REBEKA CALVO

Ibarran Ibarra, azoka eta piparra eta Asteasun urteroko Azoka Berezia izan ziren pasa den igandean. Bietan jende asko bildu zen eguraldi bikaina lagundurik eta bi azoken antolatzaileek balorazio ona egin zuten atzokoan.

Josune Bengoetxeak, Ibarrako Azoka Bereziaren antolatzaile den Hauspoa elkartearen izenean, balorazio ona egin zuen. «Jende asko gerturatu zen eta giro oso polita egon zen herrian. Baserritarrek ere oso gustura geratu ziren, etxean dutena ateratzeko eta erakusteko aukera izan zuten eta horrek jendeari gauza asko ikasteko bidea ere eman zuen», argitu zuen Bengoetxeak. Datozen egunetan, hala ere, elkarteko kideak bildu eta balorazio osatuagoa egingo dute.

Herriko baserritarren ganadu zein barazki eta bestelako jakiak ikustearekin batera, artisauen postuak eta herrian urtean egindako ekintza desberdinetako argazkiak ere ikusi ahal izan ziren Ibarran. Hau guztiarekin batera, gainera, lehiaketak ere izan ziren. Batetik IV. Euskal Herriko Piparraren Lehiaketa Gastronomikoa eta Ezti-Txapelketa, bestetik.

Hauspoako kidearen hitzetan, Piparraren Lehiaketan zazpi herrialdeetako partaideak bildu zi-

rain, gainera, «eta hori guretzako oso garrantzitsua zen, Euskal Herriko Txapelketa baitzen». Hauek izan ziren irabazleak: Piparradan lehenak Donostiako Zubimuxu Elkarteko Xabier Mendizabal eta Jose Juan Ijurko izan ziren, bigarrenak Tolosako Iزارo Pikabea eta Jon San Sebastian eta hirugarrenak Behe Nafarroako Mixel Mendi eta Mixel Sein.

Pintxoak egiten, aldiz, Ibarra Alberto Zubelzu eta Carlos Aretxaga izan ziren onenak, Ondarroako Kantabriko Tabernako Ikerne Etxebarria eta Joantxo Bedialauneta bigarrenak, eta Donostiako Xabier Mendizabal eta Jose Juan Ijurko izan ziren hirugarrenak.

Ezti-Lehiaketan Elduaingo Simon Nazabalek, Belauntzako Ramon Lopetegik eta Amezketa Aoxinixio Karrera lortu zituzten lehen hiru postuak. Hiru hauek, gainera, hilabete batzuk barru Zegaman egingo den Gipuzkoako Ezti Lehiaketarako txartela ere lortu zuten.

Aipatu behar da, era berean, herriar talde batek azoka baliatu zuela Udaleko zinegotzi eta Chelo Romeo alkateak orain gutxi herriko preso politiko eta iheslarien familei zuzendutako diru laguntza kentzeko hartutako erabakia salatuzko.

Asteasun ere oso pozik

Asteasuko Azoka Bereziaren antolatzaile lanetan aritu den Ainhoea Etxabe ere «oso pozik» agertu zen azokaren hurrengo egunean. «Oso balorazio ona eginen dugu eta oso kontentua gaude, alde batetik, egu-



Besteak beste, herriko baserritarren produktuak ikusi eta erosi ahal izan ziren igandean Ibarran. A. OTEZABAL



Asteasun ere, eguraldi bikaina lagun, jende asko bildu zen eta postu asko jarri zituzten. A. OTEZABAL

raldi bikaina izan genuen, eta, bestetik, jendearen erantzuna izugarria izan zen. Jende asko gerturatu zen, ekitaldi guztiak oso ondo atera ziren, baita lehiaketak ere...», esan zuen. Izan ere, Asteasun ere lehiaketak izan ziren. Horiiek horrela, Postu Hoberenari sarian, Elikagaien sailean, Asteasuko Errizu Baseriak irabazi zuen eta Artisauen sailean koloretako beirarekin lan egiten duen herriko bertako Kiara izan zen hoberena.

Ardi txakurren lehiaketan, berriz, bost artzai izan ziren (Bi gipuzkoar, Bizkaia beste bi eta Nafarroako bakarra). Bizkaitarretako batek irabazi zuen, azkenean. Esne-behien erakusketa-lehiaketan bost maila desberdin sailkatu ziren eta lau sailetan Ondartzabitate baserria atera zen garaile eta batean Bulano. Biak ala biak Asteasukoak.

Irabazle gehienak, hortaz, Asteasuko bertakoak izan ziren, «oso

pozgarria» dena Ainhoea Etxaberen ustez: «Ganaduan parte hartu zuten guztiak herrikoak bertakoak izan ziren, baina besteetan lehiaketak irekiak ziren eta, hala ere, herriko askok irabazi zuten. Oso pozgarria da guretzat, maila ona dugula erakutsi dute».

Etxabek, era berean, herrira gerturatutako ikusle zein parte-hartzaile guztiak eskerrak eman nahi izan zizkien.

Hiru golengatik galdu dute ibartarrek Burlataren kontra

Areto-futbola » 3-6 galdu zuen Ibarrako areto futboleko taldeak larunbatean jokaturako partida gogorrean.

ERREDAKZIOA

Belabietan izan zuen partida Ibarrako areto futboleko taldeak pasa den larunbatean. Burlatako Navarra taldearen kontra jokatu zuen eta oso ondo hasi bazen ere azkenean 3-6 galdu zuen taldeak. Partida gogorra izan zen eta Ibarrak,

gainera, Cristian Davila jokalariren kanporatzea ere pairatu zuen.

Lehen zatian, banakako berdinketarekin amaitu zena, Ibarrakoak izan ziren nagusi, baina bigarren goan oso gogor atera ziren Burlatakoak. Partidako erritmoa aldatzea lortu zuten nafarrek eta bigarren zatiko 23. minutuan lortu zuten 1-2 gailentzea. David Pradosek lortu zuen, hala ere, berdinketa.

27. minutuan aurreratu ziren berriz ere nafarrek eta 38. minutuan Luciano Pogniante argentinarrek lortu zuten 2-4 emaitza Burlatako taldearentzat.

Orokorrean, hortaz, Burlatako presio handia egin zuen eta falta asko ere egin zituen, nahiz eta Arabako arbitroek ez omen zituzten ikusten.

Oso emaitza txarra

Ibarrakoek oso emaitza txarra lortu zuten azkenean, partidako hiru puntuak Nafarroara joan zirelarik. Honetaz gain, gainera, lau jokalaria lesionatu ziren eta aipatu moduan Davila jokalaria kanporatu egin zuten. Datozen partidatan, hortaz, Ibarrakoen egoera nahiko latza izango da.

Laburrak

Udal Haur Eskolaren matrikula epea ireki dute

IBARRA » Ibarrako Kukumiku Udal Haur Eskolak ikasturte honetarako bertan izena emateko epea ireki du jada. Horiiek horrela, azaroan, abenduan, urtarrilean eta otsailean umeak Udal Haur Eskolara eraman nahi dutenek datorren hilaren 30a baino lehen eman behar dute izena. Jakinarazi dutenez, matrikula herriko San Ignazio auzoan dagoen Udal Haur Eskolan egin behar da eta bete beharrek inprimategiak ere bertan daude eskuragarri. Argibide gehiago behar duenak ere San Ignazio auzoko eraikinean aurkituko du informazio osagarria.

Erretiratuen jaiak hilaren 25, 26, 27 eta 28an

IBARRA » Ibarrako Bizi-Nahi Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak jaiak antolatu ditu datorren astera. Elkarteko bazkide guztiak bertan parte hartzeko deia ere luzatu die, gainera, elkarteko buru den Maria Jose Lanzek. Jaiak hilaren 25ean hasi eta 28an amaituko dira. Lehen egunean, hilak 25, eguerdiko hamabietan egingo dute txupinazioa eta ondorengo egunetan, besteren artean, ibilaldia, afaria, toka txapelketa, haur jaialdia, diana herriko trikitalarietara eta meza izango dituzte. Jaiak igandean, hilak 28, amaituko dira 19:30eko txupinazioarekin.



Ilegalizazioen inguruko urgentziako bilkura berrestekoan, hautetsi independentistek eskuak jaso zituzten. UPNren bi ordezkariak aurka agertu ziren. A.I.

Leitzako Udala «EAE-ANV eta EHAK alderdien eskubide politikoaren alde»

Leitza » Iragan ostiralean Udalak ez ohiko bilkuran hartu zuen erabakia, UPN eta EAren hutsuneekin.

ASIER IMAZ

Leitzako Udalak iragan ostiralean Udabatza osoaren ezohiko bilkura egin zuen udaltxean. Hainbat herritarrek *Salbuespen egoerari Stop!* ipintzen zuen pankarta zabaldu zuten aretoan.

Udalak berri, ilegalizazioen aurkako mozioa onartu zuen hautetsi independentisten 6 bozkekin. Mozioa 10 puntuz osatua zegoen. Sarrerak berriz «Espainiar Estatuaren erasoak» salatzen zituen, «Euskal Herriak bizi duen gatazka

gainditzeko konponbidea, marko demokratikoa» dela azalduz.

Ez zen aurkako edo abstentzio bozkarik egon, Eusko Alkartasunaren hiru zinegotziak eta UPNren bi zinegotziak ez baitzeuden une horretan bilkura aretoan.

UPN: «Gai politizatuak»

Eusko Alkartasunako Aitor Etxarriren esanetan, urgentziako eta aparteko bilkuraren berri bazuten EAren zinegotziek, baina jasotako deialdia hilaren 26rako zen. «Aldaketarik izan baldin bada, ofizialki ez dugu jaso», aipatu zuen EAren kideak.

UPNren bi zinegotziak agertu ziren ez ohiko bilkurara, baina mozioa irakurri eta bozkatu aurretik utzi zuten aretoa. Euren ikuspuntutik, bilkura hura ez zen urgen-

tziakoa. Urgentziako bilkura «lantzeko denborarik» ez zutela izan ere aipatu zuten, «deialdia irregularrak» zela esanaz. Azkenik, idazkariari emandako idatzian, UPN alderdiaren bi ordezkari politikoak, Espainiako justiziak hartutako erabakiez mintzatu ziren: «Udaletxeko bilkura batean, hain gai politizatuetan» parte hartzeko preste zeudela esanaz, eta ilegalizazioaren inguruko jarrerara «2007ko bera» zutela gaineratuz. Azkenik, «udaltxean, Leitzako herriaren arazoak konpontzeko soilik» zeudela aipatu zuten.

Alkateak, Xabier Zabalok, «aitzakiak» jartzea leporatu zien; «argi eta garbi geratu da ez dakizuela zer egin».

Norbanako bozkatu

Ezker abertzalearen sei hautetsiek norbanako bozken bitartez ateratu zuten aurrera urgentziako bilku-

ra. Hau da, alderdi politiko edo talde baten kide bezala bozkatu beharrean, bakoitzak bere izenean bozkatu zuen mozioa eta aurrerantz horrela bozkatzeko jarraituko zutela jakinarazi zuten.

Mozioaren sarrera

Xabier Zabalok irakurritako mozioaren sarreran, ilegalizazioen inguruan «Espainiak Euskal Herria berriro erasotzen» duela salatu zuen; «eraso honek independentismoa kriminalizatzea eta independentziari ateak ixtea ditu helburu. PSOEren gobernua herri honi eskaintzen diona: errepresioa eta konstituzioa» direla esan zuen.

Gatazka, «demokrazia eza» dela aipatu zuen Zabalok, eta konponbidea, «herriari hitza ematea, herriak aukera politiko guztien artean, independentzia barne, erabaki dezan».

LEITZAKO UDALAK IRAGAN OSTIRALEAN, EZOHIKO BILKURAN, ILEGALIZAZIOEN AURKA ONARTUTAKO MOZIOA PUNTUZ PUNTU:

1. Udala honek indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea eta beharra dutela azaldu nahi du.
2. Udala honek aukera politikoaren aniztasuna errespetatu behar dela azaldu nahi du. Honela, alderdi politikoaren ilegalizatzeko estrategia antzua eta antidemokratikoa salatzen du. Normaltasun politikoak urrutuz gaitu eta gatazka politikoa elikatzen du.
3. Udala honek azaldu nahi du ilegalizazio estrategia Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza dela eta independentzia helburu duen herri-proiektua indargabetzea helburu duela.
4. Udala orok herritarren borondatea behar du oinarri, hortaz, herritarren borondatearen aurka egiten duten lege, epai edo erabakiei ez die inolako zilegitasunik aitortzen.
5. Udala honek herritarrek aukeraturiko EAE-ANVren zinegotziak eta EHAK alderdiko parlamentariak, eragile eta mintzazko politikoa gisa onartzen ditu.
6. Udala honek, EAE-ANV eta EHAK alderdien parte-hartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko konpromisoak hartuko ditu.
7. Udala honek euskal gizarteak nahi eta eskatzen duen benetako aldaketa politikoa, autodeterminazio eta lurraldetasun eskubideetan oinarrituko den aldaketa, gauzatu dadin bere ekarpena egiteko preste dagoela adierazi nahi du.
8. Udala honek, alderdi interesen gainetik, zazpi herrialdeetako euskal herritarrok Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitze eskubidea ahalbideratuko duen marko demokratikoaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du.
9. Udala honek ilegalizazio estrategia salatzean urriaren 4ean, 19:00etan, *Salbuespen egoerari Stop. Euskal Herriak autodeterminazioa* lelopean manifestazio bat egiteko deia luzatzen du eta mobilizazio horretan herritarrek parte har dezaten gonbitea luzatzen du.
10. Onartutakoa herritarrei, herriko taldeei, zein komunikabideei helaraziko zaie atxikimendua eskatzu.



Mozioa irakurri eta bozkatu aurretik alde egin zuten UPNren bi zinegotziak. A.I.

@ Zurea da hitza. Eskualdeei buruz dituzun berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak. *Zurea da hitza* izeneko atalera jo besterik ez duzu egin behar horretarako. Bertan, kexak, iradokizunak, eskerrak... sar ditzakezu, eta argazkiekin lagundirik nahi izanez gero. Orain arte sartutakoak ere ikus ditzakezu, eta iritzia emateko aukera ere baduzu. Atal honetan sartzen dituzuen berriak ostiralero argitaratzen ditugu egunkarian:

www.tolosaldekohitza.info

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Peugeot Partner diesela. Egoera onean. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 649 5109 41.

■ **Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 615 75 57 62.

LANA

■ **Kamarera.** Anoetan esperientzia duen kamarera behar dugu. Iganetan jai izango luke. Deitu: 650 04 3139ra.

BESTELAKOAK

■ **Txakurkumea.** Border Collie arrazako amaren kumea oparitzen da. 658 70 59 12 (Xabo).



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Aduna.** Kultur Astea antolatze-ko bilera egingo dute 19:00etan, kultur aretoan.
- **Alegia.** Urriaren 19an egingo den II. Barazki eta Animalien Azokarako izen-ematea Kultur Etxean egin daiteke. Beharrezkoa da, egunean bertan zer material beharko den zehaztu ahal izateko
- **Tolosaldea.** Mugikortasun Astearen baitan, bizikleta errebisioa doan izango da Anoeta, Irura, Aduna, Asteasu, Zizurkil eta Villabona, haur eta gaztetxoei pintxoak konpontzen eta bizikletan behar bezala jartzen erakusteko.
- **Tolosa.** Tolosako Orfeoaren 10. urteurreneko ospakizunen baitan, Tolosan eskaini zuen lehen obra plazaratuko dute berriro urriaren 18an Leidor aretoan: Jesus Guridiren *El Caserio*. Sarrerak salgai dau-de Kutxaren webgunean eta zinemako leihatilan.
- **Tolosa.** Kultura sailak antolatutako kultur tailerretan matrikulazio epea zabaldu dute ikasle berrientzat, hilaren 26ra arte, Kultur Etxean bertan.



Tolosa Kantarikoan entsegua, bihar

TOLOSA ■ Ekainean hasitako ekimenari jarraipena emanez, eta geroztik hilero egin duten moduan, larunbatean Tolosa Kantari izango da Tolosako Alde Zaharreko kaleetan, 12:00etatik aurrera, Tontokalen elkartuta, «euskaraz kantatzea atsegin duen guztiei irekita.» Hori dela eta, entse-

gua antolatu dute bihako, Tolosa-ko Kultur Etxeko Areto Nagusian, 20:00etan. Hain zuzen ere, larunbatean kantatuko diren abestien entseguak egingo dituzte Evaristo Elduairen eta bere laguntzaileen gidaritzapean. Entseguan, irekia dena, larunbateko kantu sorta banatuko da. A. IMAZ

- **Tolosa.** Tolosako Caritas-ek mantak eta lo zakuak behar dituela jakinarazi du. Bere egoitzan, parroki etxearen ondoan, entregatu daitezke.
- **Tolosaldea.** Irailaren 27an Villabona egingo den mugikortasuneko bigarren azokarako materiala Aduna, Asteasu, Irura, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo udaletxeetan eta Anoetako kiroldegian entregatu behar da.

Ikastaroak

- **Tolosa.** TELP ikastaroa antolatu nahi du Aitzol Udal Euskaltegiak: tentsio uneetan nola jokatu euskaraz aritzeko eskubideari eutsiz. Hamar orduko ikastaroa bi saiotan banatuta, irailaren 25ean eta urriaren 2an. Izen ematea: Udal Euskaraz zerbitzua 943 697453

Kultur Astea

- **Bidegoian.** Zuk-zuk jaunaren alfabetoa txotxongiloak Kultur Astearen baitan 17:30ean, Bidaniko pilotalekuan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.


A Agurrak



Urte askoan!

Ametz Martikorena Irazu (Errazkin). 2 urte. Musu asko aitona, amona eta Garin partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Urte askoan!

Aitziber Aiestaran (Ibarra). 7 urte. Zorionak zure familiaren partetik eta bereziki Ane eta Aratzenetik. Ze ondo pasa genuen Aquakin.

EUSKAL HERRIA

Basatia

NATURAREN GIDALIBURU NAGUSIA

Eskura ezazu berriekin

IRAILAK 27 LEHENA DOAN!

berria

KARPETA OPARII

6 liburuki

Itsasertza, Basoak eta ibarrak, Labarrak eta haizarteak, Tontor nagusiak, Ibaiek eta ur-jauziak eta Euskal Herriko Atlas

berria